



Arartekoaren 2013ko azaroaren 13ko ebazpena. Horren bidez, gomendatzen zaio Lasarte-Oriako Udalari irisgarritasun-neurriak har ditzan udal-kiroldegian.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan aurkeztutako kexan, behar bereziak dituzten haur batzuen aita-amek adierazten dute Lasarte-Oriako uda-kiroldegian egokitzapen- eta irisgarritasun-arazoak izan arren udalak ez diela erantzunik eman, ezta egoera konpontzeko esku hartu ere.

Kexagileen arabera, 2011tik behin baino gehiagotan eskatu dute egokitzapenak egin daitezela udal-kiroldegian, ezgaitasunak dituztenen erabiltzaileei irisgarritasuna errazteko, eta badakite, gainera, izan direla askoz lehenagotik erreklamazio gehiago gai berberetatik. Diotenez, egon zen kiroldegia egokitzeko irisgarritasun-proiektu bat, igerilekuaren ondoan areto bat eraikitzea aurreikusten zuena. Haien iritziz, orduko proiektua, erraza eta kostu handirik egiteko modukoa, gauzatuz gero, arazoak dituztenek gainerako erabiltzaile gehienek bezala egin ahalko lukete kirola.

Adierazten dutenez, kexu dira arazo hau konpontzeak premiazkoa izan beharko lukeelako udalak egiteko dauzkan egitasmoen artean, baina lehentasuna eman zaie haien iritziz udalerrian hain beharrezkoak ez ziren beste inbertsio batzuei.

2. Erreklamazioan adierazitakoa aztertutik, informazioa eskatu genion Lasarteko Udalari, eta erantzunez, honako hauek azaldu zizkigun:
 - *Lasarte-Oriako Udala konszientea da guraso talde horrek azaldutako problematikaz.*
 - *Urteetan zehar behar bereziak dituzten pertsonekin hainbat programa ezberdin antolatu eta garatu izanak (ASPACE, GAUTENA, JALGUNE) ematen duen eskarmentuak erakutsi digu zeintzuk diren instalazioetan dauzkagun ahuldadeak. Hala ere programa horiek baztertzea baino egokiagoa iruditu izan zaigu beti, ahal ziren egokitzapenak eginaz egitasmoarekin aurrera egitea.*
 - *Baita ere, esan beharra dago egoera hori hobetzeko asmoarekin, txikiak izan badira ere, Udalaren kirol zerbitzuak pausoak eman dituela: Kiroldegian aldagela bat egokitu da erabiltzaile hauentzat (dutxa, eserlekua...). 2013ko aurrekontuan onartua dago igerilekuan sartu-irten egiteko igogailu bat erostea.*
 - *Baina arazoa errotik konpontzeko egin beharreko instalazioen birmoldaketa sakona da eta, oraingoz Udalak ez dituen baliabide ekonomikoak eskatzen ditu. Momentu honetan birmoldaketaren nondik norakoak izan daitezkeenak jasotzen dituzten plano batzuk besterik ez dauzkagu. Proiektua, gaur egun oraindik egin gabe dago.*





Aurrekariak ikusita ebazpen hau ematea erabaki genuenean, hauek izan ziren kontuan hartutako

Gogoetak

- Euskal Autonomia Erkidegoan, kexan planteatutako arazoari heltzeko araua abenduaren 4ko 20/1997 Legea da, Irisgarritasuna Sustatzekoa. 1. artikuluan adierazten denez, Legearen helburua da hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraibideen eta komunikabideen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek eta, batez ere, mugikortasun murriztua, zailtasunak komunikazioan edo muga psikiko zein sensoriala, aldi baterako zein betirako, dituztenek era autonomoan erabil eta goza ditzaten.

Aurrerako ezartzen denez, botere publikoek legea eraginkortasunez bete dadin beharrezkoak diren ekintza positiboko neurriak hartzea sustatuko dute.

Sustapen-neurriak zehatzean, legeak aurreikusten du, 13. artikuluan, administrazio publikoek lau urteko egitarauak egingo dituztela irisgarritasuna sustatzeko, aipatutako elementuak poliki-poliki egokitu daitezzen legean bertan eta haren garapen-arauetan oharmandako irisgarritasun-baldintzetara.

Lehenengo lau urteko egitarauak prest egon beharko zuen 1999ko abenduaren 24a baino lehenago. Erakunde honen aldetik, lehenagotik, 2003ko ezohiko txostenean, hain zuzen ere, gomendatu genuen lege-agindu hura bete gabe zeukaten administrazioek lehenbailehen egin zezaten.

Egitarauetan agiri hauek agertu beharko lukete:

- a) Egokitu beharreko kanpoko eremuen, eraikinen, garraioen eta komunikazioaren inbentarioa zuen katalogo bat.
- b) Jarduketan lehentasun-ordena, eraginkortasun handiena bilatuz eta erabiltzaile kopuru handiena kontuan hartuta.
- c) Programa ekonomikoa eta finantzazkoa, egokitzapenak egiteko aurreikuspen ekonomikoa bat jasoko lukeena.
- d) Egokitzapenak egikaritzeko egutegia.

Administrazio publikoek zehaztu behar dute, zeinek bere aurrekontuan eta bere baliabideen arabera, zenbat diru bideratuko duten irisgarritasuna bermatzeko egitarauak gauzatzeko.

Laburbilduz, 15 urte baino gehiago dira arau batek aurreikusi zuenetik irisgarritasuna sustatzea neurriak hartzea, eta helburu horrekin agindu zuenetik





planifikazioa egiteko, lehentasunak zehazteko, egitarauai aurre egiteko diru-baliabideak aurreikusteko eta egokitzapenen egitaraua prestatzeko.

- Gogoratu behar dugu, bestalde, abenduaren 2ko 51/2003 Legea, ezgaitasunak dituzten pertsonen berdintasun-aukera, bereizketa eza eta irisgarritasun osoa jasotzen dituen², Estatuko oinarrizko legea dela, eta horrenbestez, derrigor bete beharrekoa administrazio publiko guztientzat, eta arau horrek epeak ezartzen dituela legeak berak aipatzen dituen ondasun eta zerbitzuen egokitzapenak egiteko. Lege horren azken xedapenetako seigarrenaren arabera:

“1. En el plazo de dos años desde la entrada en vigor de esta Ley, el Gobierno aprobará unas condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación, según lo previsto en el artículo 10 de esta Ley, para el acceso y utilización de los bienes y servicios a disposición del público por las personas con discapacidad. Dichas condiciones básicas serán obligatorias según el calendario siguiente:

En los bienes y servicios ya existentes y que sean susceptibles de ajustes razonables, tales ajustes deberán realizarse en el plazo de diez a doce años desde la entrada en vigor de esta Ley, cuando sean bienes y servicios de titularidad pública o bienes y servicios de titularidad privada que concierten o suministren las Administraciones públicas, y en el plazo de doce a catorce años, cuando se trate del resto de bienes y servicios de titularidad privada.”

Xedapenarekin bat etorriz, 505/2007 Errege Dekretuak, apirilaren 20koak, ezgaitasunak dituztenen irisgarritasuna sustatzeko eta bazterketa eragozteko oinarrizko baldintzak onetsi zituen, espazio publiko urbanizatuak eta eraikuntzak erabiltzeari dagokionez.

Arau horretan hala ezarrita, irisgarritasunerako oinarrizko ezaugarriak **2019ko urtarrilaren 1etik aurrera** aplikatu beharko dira erakinetan, horretarako egokitzapenak arazoizkoak izanez gero.

- Lasarte-Oriako Udalak helarazitako informazioaren arabera, kiroldegia, 1985ean eraikia, Lasarte-Oriako irisgarritasun-planean ageri da, baina ez dago zehazturik, ordea, erakina arauk ezarritakora egokitzeko egutegirik. Badu udalak, beraz, plangintza bat goragoko irisgarritasun-arauak betetzeko, baina falta dira egitaraua zenbateraino betetzen den adieraziko luketen elementu zehatzak.

2

- Azken xedapenetako seigarrena, abuztuaren 1eko 26/2011 Legearen 1. artikulua hamahirugarren atalaren bidez ezarria (26/2011 Legea, abuztuaren 1eko araudia Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren arabera egokitzen duena. Abuztuaren 2ko BOE). *Indarraldia, 2011ko abuztuaren 3tik.*





Lehenago EAeko erreferentziazko arautzat aurkeztu dugunari jarraituz, Lasarte-Oriako Udalak aurreikusita dauden jarduketei ekin behar die, bere katalogoan ezarritako lehentasunen arabera, eta era horretan, irisgarritasuna sustatu eta bazterketa eragotzi udal-kiroldegiaren erabiltzaileentzat.

Badakigu administrazio publikoen baliabideak inoiz ez direla behar guztiei eusteko adina, baina udalak aparteko ahaleginak egin beharko lituzke irisgarritasuna bermatzeko hau bezala herriko jende askok erabili ohi dituen zerbitzu-eraikin irekietan.

lido horretatik aurrera jotzeko, udalak, gutxienez, obra-proiektua prestatu beharko luke, urrats bat bailitzateke kirol-eraikinak oinarrizko irisgarritasun-arauetara egokitze lanak erabakitzeko bidean. Horrela, gainera, obraren xehetasunezko aurrekontua izango luke, beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta finantzarioak dauzkan uneari begira.

Azaldutakoagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, Arartekoa sortu eta arautzekoak, 11b) artikuluan zehazten duenarekin bat etorrira, hona hemen helarazten dizugun

GOMENDIOA

1. Lasarte-Oriako Udalak lehentasuna eman diezaion dagokion obra-proiektuari; indarreko arauetan aurreikusi bezala udal-kiroldegiak erabiltzaileen irisgarritasuna bermatzeko eta bazterketa eragozteko neurriak izan ditzan, obra-proiektua prest izanik jakingo baitu zehatzik zer diru-kopuru beharko duen egokitzapenerako, eta era horretan, xehetasunez kokatu ahalko ditu obrak egitarauan.
2. Berrikus, gaurkotu eta osa dezan Lasarte-Oriako Irisgarritasun Plana Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean aurreikusten denaren arabera, batez ere lehentasunen ordenari dagokionez eta eraikin publikoetan egin beharreko egokitzapenen egutegia gogoan.

